

Pobrezia neurtzen duten sailkapenetan atzera egiten jarraitzen du Burundik eta aste honetan bertan nazioarteko erakundeek ezagutzera eman dituzten datuen arabera, une honetan Malawi eta Hego Sudan baino ez dira ageri Pierre Nkurunziza presidentearen herrialdearen atzean.

Europar Batasunak eta beste Estatu batzuek Burundiri ematen dioten diru laguntza %40an murriztea erabaki zuten, Nkurunzizak hirugarren legealdira aurkeztea erabaki zuelako, zigor moduan. Ondorioz, agintariei asko kostatuko zaie kontuak

egin du nekazarien produkzioa eta gosea pasa beste erremedio-rik ez dute herritar askok. Edonola ere, Bujumbura hiri-buruko agintariek «dena ondo dago» errepikatzen jarraitzen dute, eta herrialdeko ekonomia sasoian dagoela.

«Bortxatu aurkaria»

Zeid Ra’ad Al Hussein Giza Eskubideen aldeko Nazio Batuen goi-komisarioak aurreko astean adierazi zuenez, oso kezkatuta dago Imbonerakure izeneko go-bernuaren aldeko miliziano gazteak oposizioko emakumeak haurdun uzteko deialdiak egi-ten baitabiltza. Orain aste ba-

tzuk Internet bitartez zabaldu zen bideo batean ikus daiteke Burundiko nekazaritza eremu bateko herri batean egindako mobilizazioan talde horretako kideek edonor kezkatzeko mo-duko mezua abesten dutela ki-rundi hizkuntzan: «Haurdun utzi aurkari horiek, Imbonera-kure bat erditu dezaten». Jordanian jaiotako Nazio Ba-tuen goi-komisarioak erantsi du tankerako mezuak plazaratu di-tuztela Burundiko beste probin-tzia batzuetan ere, eta hori oso kezagarria dela, «herritarrak beldurtzeko milizia horren kan-paina, ihes egin dutenek salatu izan dutena, bene-benetakoa de-la baieztatzen baitu».

Imbonerakure miliziako gaz-teen abestia ofizialki salatu du Nkurunzizaren alderdiak, baina ia sinesgarritasunik gabe, talde hori askotan babestu izan baitu, baita giza eskubideen bortxake-ta larriak leporatu izan zaizkio-nean ere. Hutuen eta tutsien arteko ez-berdintasunak sarraski bihurtu izan diren herrialdean, ez da la-sai geratzeko modukoa indar politiko batekin lotutako gazte-ak bortxaketen aldeko agertzea. Ruandan orain 23 urte egin zen genozidioaren aurreko pasadi-zoak ekartzen ditu gogora. Baina bortxaketarako deialdi horiek hasi baino lehen ere ego-era oso ezeгонkorra zen herrial-

{ **analisi** } **Jose Angel Oria**

Burundi, eskale herrialdea

orekatzea, baina arazo horiek ez dituzte politikariek beraiek or-dainduko, herritarrek baizik. Oi-narrizko produktu askoren sal-neurriak gora eta gora egiten du etengabe: erregaiak, azukreak, arrozak, babarrunak... Gainera, zor publikoa asko ha-zi dela-eta, herritarrentzat ezin-besteko diren zerbitzuak ere ikaragarri murriztu dituzte: hezkuntzak orain urte batzuk zuen aurrekontuaren %30 galdu du bidean, osasunak %54 eta ur hornikuntzak %72. Horren guztiaren ondorio da Burundiko herritar asko pobre-tzen ari direla: iazko otsailetik urrira, hirukoiztu egin zen po-brezia maila baino beherago bi-zi diren herritarren kopurua, hi-ru milioi lagunera iristeko, hamaika milioi biztanle dituen herrialdean. Ondorioz, Burundi-ko populazioaren laurden batek laguntza humanitarioa behar du bizirik jarraitu ahal izateko, eta, hori jaso ezean, herritarrek eskale bihurtu behar dute. Gainera, El Niño izeneko feno-meno meteorologikoak kaltetu

Nkurunziza presidenteak karguan jarraitzen du eta oposiziokoekin hitz egiteko asmorik ez du. Makina bat atentatu egiten dira herrialdean eta elkarrizketa mahaiak hutsik jarraitzen du. Testuinguru horrek herritar asko eskale bihurtzera behartu ditu.

dean. Giza Eskubideen aldeko Nazioarteko Federazioak eman-dako datuen arabera, 2015eko apirilaren 25ean Nkurunzizak hirugarren legealdirako aurkez-tea erabaki zuela iragarri zuene-tik (geroztik nolabait legeztatu egin du bere egoera, hauteskun-deak antolatu eta irabazita, nahiz eta oposiziokoek iruzurra salatu zuten), gutxienez 2.000 herritar hil dituzte (horietako batzuk ministroak, jeneralak eta erakunde ugarietako buruak, jo-era politiko ezberdinetakoak), milaka lagun torturatu dituzte, 10.000 burundiar arbitrarioki atxilotu dituzte eta, daturik ar-gigarriena, 400.000 herritar in-guruk ihes egitea erabaki dute. Tanzaniako arbitroa Federazioak dio Gobernuaren eta bere aldeko taldeen indarke-riaren eraginez hartu dutela Bu-rundi uzteko erabakia errefu-xiatu gehienek. Benjamin Mkapa Tanzaniako presidente ohia dabil bitartekari lanetan, baina orain arte ez du

gauza handirik lortu. Pierre Nkurunzizaren Gobernuak ez du oposizioarekin hitz egin nahi, Burundik bizi duen indarkeria giroa beraiek eragin dutelakoan. Gainera, aurkarietako egozten dizkie 2015eko maiatzeko estatu kolpe ahalegina eta herrialdean egiten diren protestaldiak.

Hala ere, oposizioek uste dute Mkaapa dela bitartekaririk onena, Nkurunzizaren jarrera aldaraztea lor dezakeen bakarra. «Tanzaniako presidente ohia da Nkurunzizari baldintzarik gabeko negoziazioak ezartzeko gaitasuna duen politikari bakarra», diplomazialariek esan izan dutenez.

Kontuan hartu behar da Tanzania dela Burunditik ihes egindako lagun gehien hartu dituen herrialdea eta Errusia eta Txinarekin oso harreman onak dituela.

Maiatzean Ekialdeko Afrika-ko estatuburuak gailurra egiteko dute eta hitzordu horretan jarri dituzte beren itzaropenak herritar askok.

Zergatik eusten dio Nkurunzizak bere karguari, hain egoera larrian? Siriako agintari Bashar al-Assad bera ekartzen du gogora: herritar guztiak «garbitzeko» prest dago, presidente izaten jarraitu ahal izateko. Baina tankerako galdera egin diezaiekegu gero eta sakabana-tuago dauden oposizioek: zenbat denbora egin behar duzue Nkurunziza salatzen eta herrialdea nola usteltzen den ikusten, bestelako irtenbiderik eskaini gabe?

Potentzien interesak

Galdera horiei erantzun ahal izateko munduko potentzia nagusien interesei erreparatu behar zaie, Ann Garrison kazetari estatubatuarrek idatzi duenez: «Errusia eta Txinako konpainiek Burundiko meategietako kontraturik garrantzitsuenak lortu dituzte urteotan, eta trukean Mendebaldeko potentziek herrialdea NBEko Segurtasun Kontseiluan zigortu nahi izan duten bakoitzean



kontrako botoa eman izan dute Moskuk eta Pekinek». Garri-sonek genozidio arriskua ikusten du Burundin, eta bertatik ihes egitea lortu dutenek genozidioa nolabait hasita dagoela diote, International Crisis Group taldeak egin duen irakurketaren arabera: «Iheslariak onartzen dute Nkurunzizaren aurkakoen artean etnia guztietako herritarrek daudela, baina tutsi batzuek nabarmen-tzen dute segurtasun indarrek bereizi egiten dituztela etnia ezberdinetako manifestariak eta beraiek dagoeneko biktima sentitzen direla».

Gobernua harro-harro dabil. Gaston Sindimwo presidente-ordeak dio ez dagoela inolako krisirik Burundin: «Erabateko

Benjamin Mkapa
Tanzaniako presidente ohia
ari da bitartekari lanetan,
baina orain arte ez du gauza
handirik lortu.

GAUR8

bakea dugu. Aurkariak asmatu-tako alegiazko krisia baino ez da. Liskar txikiren bat izan daiteke, baina horrek ezin du herrialde osoak bizi duen bakea zikindu. Krisia atzean geratu da eta orain haren ondorioei egin behar diegu aurre».

Florent Geel Giza Eskubide-en aldeko Nazioarteko Federazio-ko zuzendariak esplikatzeko du agintariaren harrokeria hori: «Elementu ezeroso guztiak ezabatu ditu, lekukorik izan ez dadin. Nazio Batuek eta Afrikar Batasunak hedatu zituzten behatzaileei oztupoak baino ez dizkiete jarri eta beren lana egin ezinik daude. Gizarte zibilak ezin du ezer egin, izututa baitago: nabarmenduz gero, zerorren bizitza ipintzen duzu arriskuan». Horrela lortu dute agintariak, Geelen iritziz, enbrazu egiten dieten ekintzaileak hil, desagerrarazi edo torturatzeko, aldi berean dena ondo doala esaten dutela: «Erregimen totalitario eta autoritario baten definizioa da hori, Burundin duguna alegia».